

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko maiatzaren 16a

*



1963. urtean sortu zen Baztandarren Biltzarrak Euskal Herri osoko jendea biltzen du.

ARTXIBOKOA

Baztandarren Biltzarrik ez aurten

■ Baztandarren Biltzarra elkarteko kideek, 1963. urtean sortu izen bereko jaia aurten ez ospatzea erabaki dute. Baztandarrak, beraz, aurten ez dira uztailean bilduko azken 33 urteetan bezala. Antolatzaileentzat ez da erraza izan erabaki hori hartzea, baina beharrezkoa zela uste dute, eta ez dira damutzen. «Azken urteetan behera egin duen jaia da. Baztandarrek ez dute parte hartzen, ez dute jaia sentitzen», azpimarratu dute. Bailarako herritarren artean oraindik ez du zalaparta handirik

sortu berriak, askok ez baitute oraindik sinesten Baztandarren Biltzarrik gabeko uda izanen dela aurtengoa. Antolatzaileen asmoa, ordea, sendoa eta argia da: «Baztandarren Biltzarrak zentzua galdu du. Herritarrek antolatzaileen esku dagoen jaia dela uste dute, ez baztandar guztien besta dela eta denoi dagokigula prestatzea. Gogoeta egiteko epea eman nahi diegu baztandarrei, hurrengo urtean Baztandarren Biltzar gogoberritua ospatu ahal izateko». ■

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Ziur nago ezagutu berri duzun dimentsio horretan hizkuntza guztiak ulergarri egiten zaizkizula; horregatik lehendabiziko aldiz mintzatzen natzaizu, zuk niri erakutsi ezin izan zenidan, horren nire bihotzekoa bihurtu dudana honetan.

Jakin badakit oraingoan edozein hizkuntzatan gainera dena ulertzeko moduan zaudela.

Harridurarik gabe topatuko dituzu orain nire sektreturik ezkutuena, baita ezagutzen ez zenuen nire azken urteotako eguneroko bizimodua ere. Norekin, nundik eta zertan nabilen jakinen duzu eta izpiritu garbi guztiak bezalaxe ongi iruditzen zaizu nire ibilera mundutarra.

Zure aurretik joandako etxeko guztiakin batera irudikatzen zaitut. Oi, ze

festa prestatu dizuten! Honaino iristen zaizkit jota doinuen oihartzunak.

Murilleteko ardo goxoaren usaina zuten udaberri hontako ekaitzetan urttanta pottoloek. Ausartuko zinen pittin bat edatera. Haize boladek bultzaturik hodei bakanak ibili dira ondoren. Elgorriagako esnez ziprztindurik zetozen txuri-garbiak. Zelaietan kukupelak eta pitxiloreak beren edertasun osoan egonik ere, begietara-Alpeetako labandaren more kolorea baino ez zait iritsi.

Kolore eta usainetan geratu zara bizirik apirileko eurien artean.

Kolore aldakorretan eta usain iheskorretan. Lanaren atzetik beti hain mugikor izandako zure bizitzaren ibilerak ezin du paisaiaren inongo finkotasunean itzalik utzi.

Murilleteko negu gorriko laino artean ikusten zaitut, trenbidea zeharkatzen, etxerako bidean, baita Konshineako artozorrietan ere, Eulalik nire anaia artozorrien artean saskian sarturik goiko ganbarara igotzen duen bitartean. Alpe mendietan zaude euskal ghettoke tropa osoarentzat bazkaria prestatzeko behar duzun ura iturritik garraiatzen, Burlatako etxez etxeko etengabeko lanetan eta Iturramako aberatsen artean Burlatako herri langilearekin ametsetan.

Burlata aukeratu zenuen zure azken pausalekutat eta hortxe galdu diegu arrastoa zure gorputz akituari. Bainan gertu sumatzen zaitut halere, ama guztiak bezalaxe, zaindari, erne, bere umeak defendatu eta laguntzeko prest. X

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruñea: Niko Etxartek kontzertua emango du asteazkenean, maiatzak 21, Gaiarre antzokian, arratsaldeko 20:00etan. Arturo Kanpion euskaltegia da antolatzalea.

Corella: Jotaren V. Jaialdi Handia ospatuko dute gaur Maria Villar Diaz Fundazioaren zinemaren, 20:30etan. Horretan parte hartuko dute Raices Norteñas eta Brotes Navarros jota taldeek, Ricardo Visus tenoreak eta Virgen del Villar abesbatzak.

ANTZERKIA

Antsoain: Marimba antzerki taldeak haurrentzako kaleko antzerki ikuskaria antzeztuko du bihar, hilak 17, goizeko 11:30etan, Lapurbide parkean. Horren aurretik, 11:00etan, txokolate jatea izanen da, eta horren gibelatik, 12:30etan, herrik kirol ikuskaria.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Erraldioen aretoan azken 25 urteotako Iruñeko irudiak izanen dira ikusgai hilaren 28ra arte, hainbat argazkilarri irundarren argazkiekin osaturiko erakusketan. Arturo Kanpion euskaltegiak haren 25 urteurrena dela kausa antolatu du erakusketa, eta argazkiekin 2.000 pezetan (80 libera) salgai den liburu bat osatu du.

Iruñea: Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundeak antolatu munduko artisautzari buruzko erakusketa izanen da Txantrea auzoko Auzotegi Kultur Etxean, hilaren 23ra arte.

BESTELAKOAK

Antsoain: Bertso afaria izanen da gaur, hilak 16, 21:30etan, Udal Igerilekuetan. Maddalen Lujanbio eta Jokin Sorozabal ariko dira kantari.

Iruñea: Herri meza izanen da bihar, hilak 17, arratsaldeko 18:45etatik aurrera, Aita Jesuiten Elizan (Bergamin, 32).

Berriozar: XII. Lantzeluze krosa izanen da igandean, hilak 18. Korrikalari helduen irteera goizeko 11:30etan izanen da, Udal Igerilekuetan. Emakumeek 4,5 kilometro egingen dituzte, eta gizonak 7. Parte hartzeko 500 pezeta ordaindu beharko dira (20 libera), eta bildutako dirua Kubako atletei emanen zaie.

Barañain: Serigrafia tailerrak izanen dira Kultur Etxean hilaren 20tik 23ra, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Pertsona bakoitzak tailer bakar batean hartu ahal izanen du parte. Izen ematea musutruk izanen da.

Iruñea: Juanjo Olasagarre idazlea Hego Afrikako egungo egoeraz mintzatuko da heldu den ostegunean, hilak 22, Erraldioen txokoa.

nafarkronika

Patxi Larrion

Garelakoz

Azufre saltzaileak inoiz baino kezkatuak azaldu zaizkigu. Izan ere, langaiak sumoan jartzen ditu. Telefonikakoek lan tresna dute kezka, etxeko instalazio elektriko baten eskema biziki estonagarria gerta baitaiteke.

Bizkitartean, pausaleku eder honetan, sumoen erresumatik ustelkeriaren estoldetara pasa zirenak libro-libro dabilta. Lana dute barkabidea.

Ganbara zaharrak dioenez sakanak non-nahi gure errepideetan. Arazoaren gako diskrezio falta nonbait. Erdi Aroko Erakundeak fiskalizatzeko botere gutxi dauka. Komunikabideak ditugu zenbait salaketaren oihartzun bakarra. Aski ongi loturik gauzkate. Kongresua atzera-

tzeko agindua, Ferrazen edota Genovan hartua, adostasun osoz hartutako erabakia dugu. Barañainen euskaraz egiteak legeak jartzen ditu dantzan. Jauziki ibili beharrean larrain-dantza nahiago.

Iruñea hogeita bost urte liburuaren irudiek nondik gatozen eta non gauden ederki erakusten digute. Liburuaren egileek etorkizunaz ere zenbait iragarpen pausatu dituzte. Burua soildu zaigu, esperientziak gaixotu bainoago banandu egin gaitu. Ederki zekiten zeren bila ari ziren. Alta, itxaropen mezurik ez da gurean falta. Gure buruaz trufa egiten ikasi dugu, futbol taldea baino osasuntsuago bihurtzen gaituelako seinale. Bideak anitz izanda ere, orpo orpo egin beharko.



asteko pertsonaiak



Mari Abrego Mendizalea

■ Ez du zorte handirik izan Mari Abrego mendizale nafarrak azken abenturan. Eguraldi txarra dela eta, Dhaulagiri gainera (8.167 metro) igozko asmoa bertan behera utzi behar izan du Abregok berak. Juanito Oiarzabalek eta Mikel Ruiz de Apodakak osatu espedizioak. Hilaren 2an eta 4an saiatu ziren mendizaleak mendiko gainera ailegatzeko, baina elur ekaitzen indarrak atzera egitera behartu zituen. Haizeak eta elurroldeek, gainera, dendak hautsi zizkieten. Hori dela era, Katmandura itzuli eta etxerako bidea hartzea erabaki dute.



Lopez Borderias Herrilan kontseilari ohia

■ Nafarroako Parlamentuak asteazkenean aztertu zituen Sakanako autobia ikertu duen batzordearen ondorioak. Ondorioetan, ikerketa batzordeak frogatuz jo zuen Antonio Aragonen eta Jose Ignacio Lopez Borderiasek «diskrezionalitate handiz» banatu zituztela autobia lanak. Aragon sozialista 1983-87ko agintaldian izan zen Herrilanetako sailburu, eta Lopez Borderias, berriz, UPNren aurreneko agintaldian. Ikerketaren ondorioak Nafarroako fiskalburuari bidaltzea erabaki zuen Parlamentuak, Sakanako autobian deliturik izan ote zen argitzeko. Lopez Borderias UPNko senadorea da gaur egun. Oso haserre agertu da ikerketaren emaitzarekin, eta beti zintzo jokatu duela erran du.

ahaztu gabe!



JAIALDIA

Iruñea: Den-denok ume izan gara, eta batzuk umemoko ere bal. Bada, nork ez ote dauka gogoan gordeta pailazoaren irudi itxurak? Alde horretatik, seme-alabatxoak izatea sekulako mauka da heldutakoan pailazoak ikustera joateko, haurrek primeran pasatuko duten aitzakian gurasoak ere beren saltsan ibiliko baitira. Beraz, Iruñeko Euskalerrria irratiak antolaturik, Kiki, Moko eta Koko pailazoak ariko dira bihar, larunbata, arratsaldeko 17:30- etatik goiti Labrit pilotalekuan. Kantariak ariko dira, Esteribarkoak nahiz Burlatokoak, eta baita Paz de Ziganda ikastolako dantzariak ere. Aurkezle lana Goenkaleko Sarak eta Karlosek egingen dute, hau da, Anabel Arraizak eta Joxe Kruzek. Sarrerak 400 pezetan (16 libera) salgai dira Euskalerrria irratiaren, eta bihar Labriteko txarteldegietan eskuratu ahal izanen dira, 16:00etatik aitzinera. Euskalerrria irratiak duela bi urte antolatu zuen lehendabizikoz haur jaialdia, eta hark lortu zuen arrakasta ikusita antolatu du bigarrena, biharkoa.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Leitza

Bihar hasiko da kultur astea, ekitaldiz josirik

Oskorriren kontzertuarekin abiatu eta maiatzaren 25era arte iraunen du egitarauak

Bihar hasi eta maiatzaren 25era arte iraunen du XIX. Kultur Asteak, eta ekitaldiz josia dator. Besteak beste, bertsolariak, mahai-inguruak, eskulangintza erakusketa eta kontzertuak antolatu ditu herriko Kultur Taldeak. Beraz, aspertzen denak badu denbora non igaro.

Irene Arrizurieta / Iruñea

URTERO LEGEZ aurten ere kultur astea eginen dute Leitza. Hemeretzigarren ekitaldian aurreko urtean egindako baserri tresnen erakusketa izanen ez den arren, izanen da zer ikusi eta zer entzun. Astea bihar hasiko da, Oskorri taldeak frontoian arratsaldeko 20:00etan eskainiko duen kontzertuarekin. Etzi, berriz, beste kultur asteetako argazkiak, Leitza jubilatuen koadroak eta herriko etxeen maketak biltzen dituen erakusketa zabalduko da eguerdian udalekian.

Asteburuan ezezik, aste baruan ere izanen da ekitaldirik. Astelehenean Karrape Irratian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren inguruan mahai-inguruak eginen da arratsaldeko 14:30etan. Asteazkenean Natxo Barriusok Baffin irlako Asgard mendikatean barna egindako bidaia jasotzen duen diapositiba emanaldia izanen da zineman 20:00etan. Asteazkenean mahai-inguruak hartuko du berriro lekukoa. Garaiotan eskuz banakako txapeldun berria guztion



Oskorrik kontzertua eskainiko du bihar Leitza pilotalekuan.

MARISOL RAMIREZ

ahotan izanik, esku pilotaren gaur egungo egoera jorratuko dute zineman eginen den solasaldian. Han izanen dira Errandonea, Arretxe, Bergara eta Alustiza pilotariak, eta moderatzaile lanetan Josetxo Lizartza kazetaria ariko da.

Ostiralean, eginez, umeentzat hainbat ekitaldi izanen dira. Goizean, 10:30etan, egunotan Nafarroan egiten ari den Eskolarteko Betso-Paper Lehiaketako kanporaketa izanen da zineman. Arratsaldean Hortzisauroiak taldea ibiliko da herriko kaleetan, eta ondoren txokolate jatea egi-

nen dute plazan. Gauean musikaren txanda izanen da, 22:00etatik aurrera Dixiekleta jazz taldeak joko baitu zineman.

Maiatzaren 24ko eta 25eko asteburua aste kulturalaren akabera izanik, azken egunetarako utzi dute antolatzaileek ekitaldirik aipagarrienak. Larunbatean Asketa abesbatzak kontzertua eskainiko du 20:00etan elizan eta Jarauta 69 txaranga herrian ibiliko da. Hala ere, egun bereziena maiatzaren 25a izanen da, igandea, eskulangintza erakusketa zabalik izanen da baita egun osoan herriko plazan. Hogeita

hamar artisauk ahazten ari diren ofiziotan nola aritzen den erakutsiko dute; beste batzuen artean, han izanen dira: harigintza, zura eta burdina, larrua eta buztina lantzen dituzten artisauak. Tokitik mugitu gabe bertsolariak entzuteko aukera badu plazara hurbiltzen denak. 13:00etan Estitxu Arozena eta Maddalen Lujanbio bertsoan ariko dira, eta, ondotik, herri bazkaria izanen da. Enpo eginda gelditu ondoren, bazkaria jaisiteko Imuntzo eta Beloki trikitilariak plazan joko dute 19:00etan. X

Eunate

Izarbeibarko Euskararen Eguna ospatuko dute hilaren 25ean

Gares eta Obanosko euskaltegiek, Guraso elkarteek eta Izarbeibarko euskaltzaleek antolatu dute

Erredakzioa / Iruñea

IZARBEIBARKO Euskararen Eguna ospatuko da hilaren 25ean, Eunatean, Obanos eta Garesko euskaltegiek, Guraso elkarteek eta, oro har, Izarbeibarko euskaltzaleek antolatuta. Nafarroako Gobernuaren eta Izarbeibarko Udalaren laguntzaz. Kirolak emanen die hasiera eguneko ekitaldiei, goizeko hamarretan bizikleta martxa abiatuko baita Garestik. Ordu erdi geroago Obanosera iritsiko da, eta hamaikak laurden gutxitan, azkenik, Muruzabalera. Hamaika eta erdiak aldera alegatuko dira txirrindulari guztiak Eunatera.

Eunatean, eguerdian, meza eginen dute, euskaraz, Obanosko abesbatzak lagunduta. Ondoren, eguerdiko ordu batean, dantzariak, txistulariak, gaiteroak eta trikitilariak emanaldia eskainiko

dute. Herri kirolak ikusi eta txalapartaren hotsa entzuteko aukera ere izanen da.

Ordu bi eta erdietan, bazkaria eginen dute denek, trikitilari eta gateroek alaiturik. Bazkarian parte hartu ahal izateko txartela eskuratu behar da alde zurretik leku hauetan: Obanosko estankotan eta Garesko eskolan eta Eva eta Oihuka liburudendetan. Helduek mila pezeta ordaindu behar dute bazkaltzeko, eta hurrek, berriz, hirureun, eta ez dute txartelik behar.

Bazkaldun ondoren, arratsaldeko lauretan, izanen da eguneko hurrengo ekitaldia, antzerkia alegia. Haurrentzako obra bat taularatuko du Sambu taldeak. Azkenik, arratsaldeko sei eta erdiak aldera, etxerako bidea hartuko dute berriro txirrindulariek eta Eunatera hurbildutako gaitontzeko lagunek.



Iaz bezala, aurten ere haurrak izanen dira protagonista.

EGUNKARIA

Bestalde, Euskararen Eguna osagarri, hitzaldia izanen da datorren ostiralean Obanosko eskolan, arratsaldeko zortzieta-

tik aurrera. Hitzaldi horretan Izarbeibarko mito eta kondairak izanen ditu mintzagai Roldan Jimenok. X

Altsasu

Euskarari buruzko erakusketa jarri dute Aralarko Mikel Donean

Ikusi ez duenak gaur izanen du azken aukera

Erredakzioa / Iruñea

ALTSASUKO Aralarko Mikel Donea ikastetxeko Ahoz aho, belaunez belaun erakusketa oraindik bisitatu ez duenak, gaur du —arratsaldeko seietatik zortziak arte— azken aukera. Erakusketa interaktiboa da, eta familia, eskola eta komunikabideak ardatz nagusitzat hartuz, euskaren transmisioa aztertzea du helburu. Horrekin batera, eguneroko bizitzako arlo guztietan euskara erabiltzeak duen garrantziaz ohartarazi nahi dituzte ikasle eta gurasoak antolatzaileek.

Antolatzaileak hauek dira: Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Europako Kontseilua eta Anaia Haritza argitaletxea. Gure eguneroko bizitzako ataletan euskara erabiltzeak duen garrantzia erakusten duten panelek osatzen dute Aralarko Mikel Donea ikastetxean ikusgai den erakusketa, alegia, eskolan, etxean eta kalean. Euskarazko komunikabideei ere eskaini diete antolatzaileek txoko bat, baita euskalkiei ere. Panelak ezezik, ordenagailu bat dago erakusketan. Horrek, Nafarroan euskara ikasteko dauden aukeren berri ematen du. X

Tafalla

Udalekuak antolatu ditu Udalak

Erredakzioa / Iruñea

TAFALLAKO UDALAK, Kirol Patronatuaren eta Gazteriarren Batzordearen laguntzarekin, udalekuak antolatu ditu aurten ere, hamalau urtetik hogeira bitarteko neska-mutilentzat. Bi udaleku presatatu ditu Herriko Etxeak, eta biak uztailaren 20tik 30era bitartean eginen dituzte.

Lehenengo uraren inguruan antolatu dute, eta Santanderko La Horadada Klub Nautikoan eginen dute. Itsasoaz gozatzeko aukera izanen dute partaideek. Bigarrena Murillo de Gallegon (Huesca) eginen dute, eta abenturazko kirolak eginen dituzte.

Bi udalekuetako batean parte hartu nahi dutenek hilaren 30a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Partaide kopurua mugatua izanen da. Prezioari dagokionez, 40.000 pezetatik gorakoa da, baina Udalak, Kirol Patronatuak eta Nafarroako Aurrezki Kutxak emandako laguntzari esker, 10.000 pezeta bakarrik ordaindu beharko du partaide bakoitzak. X

«Lagundu eta sentitu»

Baztandarren Biltzarrak bailarako biztanle guztien partehartzea eskatu du besta gogoberritzeko

Aurten Baztandarren Biltzarrik gabeko uda izanen dute Elizondon. Uztailako besta ez egitea erabaki dute Baztandarren Biltzarra elkarteko kideek, azken urteetako agoniari amaiera emateko. Nekatuta eta aspertuta daude, ez jaialdian ez prestakuntzan ez dutelako parte hartzen baztandarrek. Erabaki zaila izan dela azpimarratu dute, baina guztiz beharrezkotzat jo, «bازtandar guztien gogoia astindu eta Baztandarren Biltzarra berpizteko».

Edurne Elizondo / Elizondo

ASTEARTEA egun euritsua izan zuten Elizondon, iluna, eta baztandarrek tabernetan bilatu zuten aterbea. Baztandarren Biltzarra elkartearen egoitzaren ondoan, adibidez, Juli ostatuan, bildu ziren hainbat. Elkartearen egoitza hurbil izateagatik agian, Baztandarren Biltzarra zuten mintzagai han bildutakoek. «Ez omen dugu bestarik izanen aurten», Jesus Goñik. «Hala diote, bai», erantzun Maite Etxenikek barraren atzetik. Hitz horiek, berehala, ostatuko jabe Juli Goñiren oroitzapenak astindu zituzten, eta hasierako Baztandarren Biltzarrak irudikatu zituen buruan.

«Haiek bai ederrak! Karroza zoragarriak! Hura bai giroa! Gogoratzen al duzu, Jesus, lehenengo urtean irabazi zuen karroza?». Jesusek ezezik, tabernan bildutako guztiek gogoratzen zuten: Lekarozko herriak egindako Baztango armarrria. Oroitzapenek ekarritako pozarekin, ordea, tristura nahasi zen aurten Baztandarren Biltzarrik ez dela izanen gogoratzean. Juliren hitzekin bat egin zuten denek: «Lan handia da, eta zaila da urtero halako besta prestatzea. Nekatu egin dira. Baina heldu den urtean berriz izanen da Baztandarren Biltzarra».

Aurten besta ez egiteko erabakia baztandar anitzen ahotan badago ere, beste anitz isilik dira. Askok uztailaren Baztandarren Biltzarrik ez dela izanen oraindik sinesten ez dutelako, agian, ez du zalaparta handirik atera orain artean berriak. Baztandarren Biltzarra elkarteko kideen erabakia, ordea, sendoa da, atzera-biderik gabekoa. Eta sendoa eta argia da era berean erabaki horren bidez lortu nahi duten helburua: baztandarrei gogoeta egiteko denbora eman, konturatu daitezten Baztandarren Biltzarra bailarako biztanle guztien jai dela, denek parte hartu behar dutela, eta denen esku dagoela besta hori antolatzeako ardura. Xede hori egia bihurtzea lortzen badute, Baztandarren Biltzar gogoberritua izanen dute baztandarrek datorren urtean.

Iragarritako eten baten

kronika • Baztandarren Biltzarra ez egiteko erabakia aurretik iragarritako eten baten kronika izan dela erran daiteke, azken lauzpabost urteetan gainbeheran zetorren besta baitzen baztandarrena. Hala uste dute elkarteko kideek; bai, behintzat, gurekin mintzatu direnek. Baztandarren Biltzarren egoitzan asteartean bildutako artean, Santi Aldako Elizondoko alkate juratua zen beteteranoa. Hamabost urte luze darama elkartean. «Uzteko irrikitan nago baina inor ez dago lekukoa hartzeko prest».

Ondoan, hala ere, gazteak zituen Aldakok, azken urtean ailegatutako elkarteko kide berriak. Gehienek iazko Baztandarren Biltzarren ondotik utzi zuten elkartea. Amaiurko Isabel Aleman eta Ainhoa Bielak, Anizko Asier Maritorenak eta Iruriko Xabier Lertxundik, ordea, lanean jarraitu dute. Eta pozik gainera, nahiz eta gogor ari behar duten, «gogoko tokian ez baitago maldarik».

Azken urteetako gainbehera azaltzeko, arrazoi bat baino gehiago dagoela uste dute Baztandarren Biltzarra elkarteko kideok. «Alde batetik, bailarako biztanleek ez dute parte hartzen. Besta antolatzea gure gauza dela uste dute; ez dira konturatzen, izenak berak dioten bezala, baztandar guztien elkartea dela gurea. Egunotan, adibidez, jendeak galdetu digu ea zergatik aurten ez dugun besta egin behar, gure gauza balitz bezala. Eta anitzek gainera erabaki hori hartu izana aurpegiatu digute, haserre. Ez dira konturatzen aurten Baztandarren Biltzarra ez egitea denon erantzukizuna dela, besta egitea ere denona den bezala», azaldu du Isabel Alemanek.

Asier Maritorenak eman digu bigarren arrazoiaren berri: «Bestaren inguruko sentimendu edo izpiritua galdu da. Zentzua galdu du. Jada ez da baztandar guztiak biltzeko eguna, mozkortzeko eguna baizik, beste edozein besta bezala».

Asierrentzat argi dago Baztandarren Biltzarra ez dela edozein besta. 20 urte ditu eta bakarra zuenetik parte hartu du



Txistulariak Baztandarren Biltzarran, Balleko Etxearen aurretik pasatzen.

ARTXIBOKOA



Orga desfilea Baztandarren Biltzarreko ekitaldi nagusia izaten da urtero.

ARTXIBOKOA

Isabel Aleman: «Ez dira konturatzen aurten Baztandarren Biltzarra ez egitea denon ardura dela, besta egitea ere denona den bezala»

Baztandarren Biltzarrik
ez aurten

Bestaren iragana eta etorkizuna

■ *Aurtengo etena gogoeta egiteko garai aproposa dela uste dute baztandarrek*

E. E. / Elizondo

baztandarren jaietan. «Baserritar arropa jantzi, eta Elizondora orgarekin», gogoratu du. Horregatik, hartu duten erabakia hartzeak denek bezala min egin diola aitortu digu. Baina egokiena dela uste du, egin behar zena egin dutela, jendearen gogoeta berritzeko. «Herriko zaharrak etorri zaizkit, ia negarrez, aurten Baztandarren Biltzarrik ez dela izanen jakin dutenean. Eta gogorra da, baina beharrezkoa. Ardura ez dago gure esku, baztandar guztien esku baizik. Ea konturatzen diren hobe dela denon artean lan egitea. Gazteen ideia eta gogo berriak behar ditugu, denon laguntza. Baztandarren Biltzarra lehen bezala sentitzea. Elkarteko ateak urte osoan daude zabalik».

Santi Aldakok ongi ezagutzen ditu lehengo Baztandarren Biltzarrik, erran bezala hamabost urte baitaramatza elkartean. Horregatik, lotsagarria iruditzen zaio azken urteetan Elizondon gertatutakoa: «Baztandarren Biltzarren organ desfilera da garrantzitsua, eta hamabost herriko sei edo zazpi besterik karroza ez egitea lotsagarria da». Horrek edonor erretzen du. Aldakok ongi daki hori zer den, harekin hasitako guztiek elkartea utzi baitute dagoeneko: «Betikoez lan egitea nahi dute baztandarrek, eta laguntzeko jende gutxi dago prest. Orain dela bi urte, eguraldi txarra ateratzen zen eta bazkaria beste leku batean egin behar izan genuen. Ostatur ostatu ibili nintzen igande goizean gazte taldeei laguntza eskatuz gauzak mugitzeko, eta inor ez zen etorri».

Halako gertaerak Baztandarren Biltzarra elkarteko kideen gogoeta ilundu dute. Hori dela eta, gero eta argiago ikusten dute zerbait egin behar dela, horrela ezin dutela jarraitu. Aurten atsedean hartzea —zigor hitza aipatu du Santi Aldakok, baztandar guztientzako zigorra— izan da lehenengo pausoa. Baina eman beharko dira beste batzuk.

Isabel Alemanek hurrengo urteetako Baztandarren Biltzarrik egiteko moldea ekar dezakeen proposamena plazaratu du, elkartean eztabaidatzen hasi direna: herrietako eta bailarako talde eta kolektiboen elkarlana. «Baztandarren Biltzarra elkartea berezia da, baztandar guztion, alegia, eta agian, talde guztien lana koordinatzea da elkarteko horri dagokion lana. Baztandarren Biltzarra denon artean eginez».

Proposamen horrekin batera, mezu bat bidali nahi izan diete Baztandarren Biltzarra elkarteko gazteek, Ainhoa Bielaren aholki, bailarako biztanle guztiei: «Lagundu, errazagoa eta politagoa izanen baita denon artean lan egitea. Eta sentitu besta, berezia baita Baztandarren Biltzarra».

1963. URTEKOA izan zen Elizondon ospatu lehenengo Baztandarren Biltzarra. Mariano Izeta herriko idazle eta euskaltzaleak ongi gogoratzen du, hutsik egin gabe parte hartu baitu urte hauetan guztietan, mutil-dantzarien buru, gainera, orain dela gutxi arte. Malkorra txokolate ezaguna egiten duen gozodendaren ondoan du Izeta familiako erlojundenda, eta hantxe, Jose Mari Izeta anaiarekin batera, gogoratu ditu Marianok hasierako urteak.

«Neska eta mutiko batzuei bururatu zitzaizten Baztango hamabost herrietako biztanleak biltzeko besta egitea. Denek organ apaindua ekarri behar zuten, eta haren atzean, herriko guztiak bildu txistu eta soinuek lagunduta. Eta hala elkartu ziren Elizondo, Elbetze, Erratzu, Arizkun, Azpilkueta, Gartzain, Lekaroz, Irurita, Arraioz, Mugairi, Aniz, Ziga, Berroeta, Almandoz eta Amaluz». Jarraian eta zitu bizian erran ditu herri guztien izenak Izetak.

Baztandarren Biltzarra sortu zenetik desfilera izan da beti eguneko ekitaldi nagusia. Orgak, dena den, ez dira beti berdinak izan, nahiz eta Mariano Izetak azpimarratu duenez «beti oso gauza ederrak egin». Hasierakoek, ordea, xarma berezia zuten baztandarrentzat. «Simpleagoak ziren, baina traktoreak bultzatu ordez, behi eta zaldiek bultzatzen zituzten. Eta organ atzean, azken urteetan ez bezala, herri osoa biltzen zen, kantuan eta dantzan».

Baztandarren Biltzarren egitaraua, bestalde, berdina izan da urte hauetan guztietan: meza lehenbizi, desfilera ondoren, bazkaria gero, eta azkenik, dantza. Mariano Izetarentzat, dena den, hasierako urteak izan ziren politenak: «Baztandar guztiak biltzen ginen, baina bakarrik baztandarrek. Gero, Iruñeko eta Nafarroako beste herrietako jendea etortzen hasi zen, Iparraldekoak gero, eta orain, Euskal Herri osoetik etortzen da jendea bestan parte hartzera».

Garaian garaioak eraginda baztandarren besta zertxobait aldatu bada ere, nabari da Mariano Izetarentzat gauza berezia da, begiak piztu egiten zizkio-eta solasean. Hori dela eta, penaz hartu du aurten Baztandarren Biltzarrik ez egiteko erabakia, baina ulertzen ditu elkarteko kideen arrazoiak. Eta, haren ustez, «ez da larria urte batez huts egitea, hurrengoan hasierako gogoeta pizten bada berriro». Eta Izeta ziur da hala gertatuko dela.

Azken finean, garai txarrak lehen ere bizi izanak ditu Baztandarren Biltzarrik. Mariano Izetaren anaia Jose Mari gogoratu duenez, 1965 inguruan —ez du datu zehatza buruan— ez zen besta egin urte batez, antzeko



Meza, desfilera eta bazkaria ezezik, musika eta dantza ere badira eguneko protagonista.

ARTXIBOKOA

arrazoiak zirela eta. Ondoren ere, 1976an eta 1986an —Julio Iturralde zela Baztango alkate-arazoak izan zituen Baztandarren Biltzarrik, 1976an, zehazki, Guardia Zibilaren aituzinean korrika egin behar izan zuten bestan bildutakoek, eta 1986an guardia zibilek inguratuta egin zuten bazkaria. Marianok nabarmendu duenez, «beti izan dira Baztandarren Biltzarren kontrarioak».

Mariano Izetarekin atzera begiratu badugu, iragana gogoratuz, Joseba Igarabide erratzuarra oraina aztertu eta etorkizunari begira gogoeta egin nahi izan du Baztandarren Biltzarren inguruan. Elkarteko kideek

hartu duten erabakia, hasteko, egokitzen jo du, «gogoeta egiteko denbora hartzea beharrezkoa baita».

«Elizondon talde asko sortu da kulturaren alorrean, eta Baztandarren Biltzarra krisian da orain. Bere lekua bilatu behar du. Gogoeta egin behar du ikusteko bere eginkizuna eta funtzioa zein den. Denbora berrietara egokitu behar du», aipatu du Igarabidek. Eta Isabel Alemanek proposatu bezala, aukerarik onena bailarako eta herrietako talde guztien indarrak biltzea izan daitekeela uste du Igarabidek ere: «Euskararen munduan lanean ari garen taldeok indarra izan beharko genuke halako eki-

taldiak antolatzen, guztiok elkarrekin, eta uste dut gaitasuna badugula. Ez dugu kultura baztertu behar».

Baztandarren Biltzarra elkarteko kideek aipatu herriarren partehartze ezari dagokionez, bestalde, hau aipatu du Joseba Igarabidek: «Zaila da parte hartzea, Zentralizazioa dago eta Baztandarren Biltzarra Elizondon egiten da beti. Azken finean, hango ostaturtzat onura ekartzen duen besta da, ez, ordea, gainontzeko herrietatzat. Uste dut herriek burujabetasuna galdu dutela, eta hori ez da bakarrik Baztandarren Biltzarren inguruan gertatzen, orokorrean baizik».

Baztandar guztiak bezala, triste dago Joseba Igarabide aurten baztandarren bestarik izanen ez delako, baina aurtengo etenak heldu den urtekoari on eginen diola uste du. X

Mariano Izeta: «Ez da larria aurten huts egitea, datorren urtean gogo berriz ospatzen bada»

Xanti Begiristain

Harluxeti suspentso txiki bat

■ EUSKALDUNON EGUNKARIA joan den larunbatean hasi zen banatzen Munduko Atlasa. Irargarri duten arabera, sei astez kaleratuko dituzte hamabi faszikulu, larunbat eta asteazkenetan, atlas osoa atera arte. Joan den urtean, aipatu egunkariak beste horrenbeste egin zuen hiztegi entziklopedikoarekin. Jarraitu baino lehen, adierazi nahi diet EGUNKARIAkoel egiten ari diren mota horretako lanak oso beharrezkoak eta onuragarriak direla. Beraz, Zorionak!

Gaizki-ulerturik egon ez dadin argitu nahi dut, Munduko Atlas hau ere, aurreko Entziklopedia Unibertsala bezala, Klaudio Harluxet Fundazioa eta EGUNKARIAren lankidetzari esker iristen ari dela gure eskuetaraino, hau da, oker ez badut ulertu, gorago aipatu fundazio horrek egin du Atlasa eta EGUNKARIA banatzen ari da bere saltokietan nahi duen ororentzat.

Munduko Atlas horrek, besteak beste, honako eduki hauek izanen ditu azaletik esanda, alegia, mundua, kontinenteak, estatuak, estatuturik gabeko herriak eta Euskal Herria.

Hala ba, esan bezala, joan den larunbatean eskuratu nuen lehendabiziko faszikulua, Euskal Herriko errepideen maparekin batera.

Berehalaxe hasi nintzen ikusten eta gainbegiratzen piska bat, eta batez ere, berezikiago Nafarroari dagokiona.

Tamalez, esan beharra daukat aurkitu ni-tuela akats batzuk, eta zoritxarrez gainera, lehenago Entziklopedia Unibertsalean egin ziren bertsuak.

Hiru akats mota gutxienez topatu nituen lehendabiziko faszikulu horretan eta errepideen mapan, hots, alde batetik herri izenei dagokiena, bestetik falta diren izen batzuei dagokiena, eta azkenik, altituden akatsei dagokiena.

Jarraian azalduko dut kasu bakoitza xehetasun handiagorekin, Hona hemen ba. Lehendabiziko kasuan, Nafarroako herri izen askotxo gaizki idatzita ageri dira. Zehazkiago esateko adieraziko dut, izen horiek direla hain zuzen ere, EGUNKARIAK ateratako bigarren Estilo Liburuan, 77 eta 78. orrialdeetan dauden gehienak, alegia, Aguilar de Codes, Arguedas, Cabanillas, Cabredo, Cadreita, Caparoso, Carcar, Cascante, Caseda, Castejon, Cienruenigo, Corella, Cortes, El Busto, Espronceda, Falces, Lapoblacion, Marcilla, Mendavia, Murchante, Romanzado, Sansol,

Santacara, Torralba del Rio, Torres del Rio, Valtierra, Viana, Villamayor de Monjardin eta Villatuera.

Azpimarratu nahi dut, nik ez dudala deus ere asmatu; Euskaltzaindiak horrela dio, eta berari egin behar zaio jaramon. Gainera, EGUNKARIAK ere, horrelaxe aitortzen dio arrazoia 77. orrialdean (Estilo Liburua).

Era berean, gogorarazi nahi dut, iaz Entziklopedia Unibertsala zela eta, faszikuluren batean eskatzen zuten mesedez apuntatzeko eta adierazteko ikusten ziren akatsak, eta oroimenak hutsik egiten ez badit, ziurtzat emango nuke oraingo errore batzuk, behintzat, jakinaz nikiela bere garaien zegozkien pertsonen.

Bigarren kasuan, Nafarroako mapan, gutxienez gutxienez ikusi dut falta direla Eltzaburu eta Longida-Murillo. Berebat, lehenengo faszikuluan Nafarroa Garaiko Lekunberri ez dute jarri udalerrri bezala, eta nik uste dut badela.

Eta hirugarrenez, altituden kasuan, Leitzari jarri dizkiote 669 metro. Uste dut 500 ingurukoa dela. Eta Urrotzi (Irunberri-Agoitzako (sic)) 60 metro. 400-500 beharko lituzke.

Gauza bat guztiz garbi dago. Hemen inor ez da akasgabea. Denok egiten ditugu hutsak, baina norbaitek esan zuen bezala, «jakintsuen ezaugarria, akatsak zuzentzia».

Hortaz ba, Harluxet Fundaziokoek eta EGUNKARIAkoek aukera bikaina dute erakusteko jakitunak direla. Uste osoa daukat. ■

MUNDUKO ATLASA



MUNDUA • KONTINENTEAK
ESTATUAK • ESTATURIK GABEKO HERRIAK
EUSKAL HERRIA



Egunkaria

EUSKALDUNON EGUNKARIArekin batera banatua

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal miriku gutti zenbaitez hainbat ohar ments

■ Ezin dut esan sendagileak maitatzen ditudala, ez ondikotz! Halaz guziz ia seguru bakarra ez naizela, eta gauza jakina bada medikuak berak ere arras eri moldagaitzak ohi direla. Alabaina, gorputz trenputxartuak ibiltzeaz lekot, idazlari xaloak ukan ditugu gorputz erremintariak, ez trebeak baina herri mintzoak dioen gisan, mediku hizki zorabiagarria, eta neronek bederen, eskertzen diet beste edonork historikoki behinik behin bere izan ez duen aukerari muzin egin ez izana. Gure Euskal Herrian ere bai.

Errenazimenduarekin batera Saran sortu eskolan Stephanus Heriogiti doktorea genuen. Etxeberri Ziburukoaren *Noelak* idazkiaren hasmentan olerkigile. Etxeberri honek berak ere anai bat omen zuen osagile, garbitasuna gai zuten euskarazko bertso batzuren egilea. Garai bertsuaren Nafarroako herbereci buruz abiatuz Korellako Alfonso Lopez Ramirez, Tuterako Juan Lopez, eta Balentin Andosilla Salazar baditugu. Alcalako Unibertsitatean ikasle izandakoa, Korellakoa liburu abondoren izkiriagilea izan zen, latinez nahiz gaztelaraz, baina guzietan ezagunena, ardoaren dohainak goraiatzeko *De vini commoditatibus*. Ardoaren abantallak hots, Zaragozan 1550.ean argitaratu zena. Erribeherakoak 41 zekidoretan garatu zuen gaia, eta, arrailazale hordiarri berebiziko laketa agi lekio: «1: Vinum naturae humanae est multum familiae. 2: In nulla egritudine est inhibendum vinum. 10: Anime pravis affectionibus medetur vinum. 11: Vinum acuit ingenium. 14: Vinum numquam senescere. 18-19: Navarra est temperatissima regio. Corella vina gignit optima», eta azken boladak merkatal kanpainari aitziz datorren hau: «Mustum inebriat, quiddid Macrobius velit». Mozkor gaitzezen muztioz beraz, eta lasai aski!

Aipatu bigarrena berriz ez zen Ebroko hiritik bereziki hastandu eta sorterriko udal osagilea arizan zen 1629.ean zendu zen arte. Agidanean lan bakarra utzi zigun, latinez ere, Iruñean 1586.ean ageri *De re medica ad Tyrenes libri sex*. Balentin Andosilla Salazar berriz Valenzian egin zituen ikasketak, Luis Collado irakasle ospetsuaren eskutik. Iruñean ihardun zuen eta XVI. mende bukaeran Nafarroan zabaldu izurriteak bultzaturik, 1601.ean Iruñeko Matias Mares baitan liburu hau argitaratu eman zuen: *Libro en el que se prueba con claridad el mal que corre por España ser nuevo y nunca visto, su naturaleza, sus pronósticos, curación y la providencia que se debe de tener con él*. Eritasunaren deskribapenarekin batera gaixoak zaintzeko moduz jardun zuen.

Erronkari ibaxako Garden sortu Diego Aroza ere izen hantuko medikua genuen XVII. mendean. 1668.ean eta Leridako Juan Noguésenean honakoa eman zuen argitara, *Thesoro de las excelencias y utilidades de la medicina y espejo del prudente y sabio médico enriquecido e iluminado con varia lección*.

XVIII. mendean Joanes Etxeberri Sarakoa genuen izen handiko medikua. Ibilbide luzekoa, Sara-Bera-Hondarribia-Azkoitia ardatza korritu zuen eta semea Agustín ere Motrikuraino iritsi zen, nahiz ezer idatzirik utzi zuenentz ez dakigun ordea. Hagitz ezaguna ere Bizente Lardizabal Dubois donostiarra. Caracasko Kondepainaren medikua, lan ugarien egilea izan zen: *Consideraciones político médicas sobre la salud de los navegantes*, Madrid, 1769, edo *Consuelo de navegantes en los estrechos conflictos de falta de ensaladas y otros víveres frescos en las largas navegaciones*, Madrid, 1772. Arrenkura handia bazien uren kontuei, eta hortan dator txokolaterearen gaineko lan aditua: *Memoria sobre las utilidades de el chocolate para precaver las incomodidades que resultan del uso de las aguas minerales y promover sus buenos efectos como los de los purgantes y otros remedios y para curar ciertas dolencias*, Iruñean, Antonio Castilla baitan, 1788: «Todo está reducido a tomar una jícara de chocolate a la hora regular, echarse sobre él un vaso de el agua mineral luego inmediatamente y continuar las tomas en la forma ordinaria, dando fin a la faena con la taza de caldo si lo exigiera la necesidad».

Arras ezagunak bestalde Donibane Lohitzunen jardun bi mediku olerkari: Jean Batista Larralde Etxeberri hazpandarra eta Martin Guilbeau Oartzabal urruñarra. Biak izan ziren Abbadie akuilatu lore jokoetan behin eta berriz parte hartutakoak. Guilbeau 16 urterekin jada *Euskaldun baten bihozminak Indietan* izenburuko olerkia egin zuen. 1878 urteaz geroztik alkatetza bere gain hartu zuenetik ordea, errepublikanoekin beti ere, ez zuen behar bezalako oneritzia jaso. Beste lanen egilea ere izan bazen, besteak beste, hiztegi gintza kontuak, herri medikuntzari buruzko zirkinen bat, eta agotei buruzko lan ezaguna. Euskaltzaindia sortu aurretik burutu bileretan genuen, Campion, Manterola edota Broussainen laguna, eta Hazparrengo Pierre Broussain ere medikua, tesia Parisen defendatu ostean sorterrian leial, Pierre Lotiren laguna zatekeen Durruty medikuaren ordezkaria. Broussainek lagun zuen Atharratzeko medikua zen Albert Constantin Garbi. Hauze, Izpuran sortu bazen ere, xiberutar ezpalekoa genuen, gurasoak biak Santa Grazikoak baitzituen. Alberten aita, bestalde, euskal idazlea ere bazen izan, *Hartxabaletaren bizitza* klasikoaren egilea zen Jean Baptiste euskaltzaleen biltzarkidea alegia. Urte hauetan ere Zuberoko J. Felix Larrieu (1864-1941) aipatu beharra dago. Paris aldeko Montfort-l'Amauryen aritu zen sendagile eta *Armanaka* iuskaraz izenburuko argitara eman zuen. Erderaz ere intereseko gauzak argitaratu zituen, berbarako, *Mauleon et le Pays de Soule pendant la révolution*, Parisen 1899.ean. ■

Eskuekin ikusi

Itsuentzako erakusketa berezia zabaldu dute Nafarroako Museoan igandera bitartean

Nafarroako Museoan erakusketa berezia zabaldu zen joan den larunbatean, *Historia zure eskuetan* izenburupean. Orduz geroztik, hainbat taldek bisitatu dute jada, eta guztiek ezaugarri komuna dute: itsuak dira. Eskuen bitartez ikusi dituzte Nafarroako Museoan bildutako piezak. Igandean amaituko da erakusketa.

Edurne Elizondo / Iruñea

EGUNOTAN Nafarroako Museoan areto batean paratu duten erakusketa ez da berria. Hirugarren aldiz antolatu dute aurten. Halako erakusketa egiteko ideia 1993. urtean sortu zen. Urte horretan Ana Redin allegatu zen Nafarroako Museora eta helduentzako ekintza pedagogikoak antolatzeko ardura hartu zuen bere gain. Beste talde eta kolektibo askoren artean, gutxituei eskaini nahi izan zizkien museoan antolatutako hainbat ekitaldi.

«Gorrek lan egitea erraza izan zen, eta bisita bereziak prestatu genituen interpretarien laguntzaz. Gutxitu psikikoak etorri zirenean, berriz, euren neurriko erakusketa prestatzen saiatu ginen. Itsuentzat, azkenik, erakusketa bereziak antolatzea izan da irtenbide bakarra», azaldu digu Ana Redinek.

Itsuentzako erakusketa prestatzea, dena den, ez da lan erraza izan Nafarroako Museoan teknikiari azpimarratu legez, «aintzindari izan baikara». Urte berean, 1993an, itsuentzako museo zabaldu zuen Madrilgo ONCEk (Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak), baina horretaz gain, urriak eta jarraipenik gabekoak izan dira Estatuan izan diren halako beste ekimenak.

Nafarroako Museoak, beraz, lau urtetako esperientzia du, eta orain artean, itsuentzako hiru erakusketa antolatu ditu. Aurtengoa da hirugarrena. «Zerbait ludikoa, didaktikoa, interaktiboa egin nahi nuen, eta uste dut lortu dugula», dio Ana Redinek. Lehenengo erakusketa historiaurreari eta erromanizazioari eskaini zion Museoak, bigarrena Erdi Aroari —erromanikoari eta gotikoari—, eta aurtengoa, berriz, garai modernoari. Bepizkundea eta barrokkoa jorratu dituzte.

Zilarra, burnia, eskaiola eta zura • Larunbatetik geroztik, hainbat taldek bisitatu du jada erakusketa, Iruñeko ONCEk edo Beldintasuna elkarteak, besteak beste. Bihar, halaber, Zaragozako ONCEko kideak izanen dira Nafarroako Museoan, eta igandean Bilbokoak. Denek ibilbide bera egiten dute erakusketa osatzen duten piezen artean.

Hamabost laguneko taldeak osatzea da lehenengo zeregina. Lehenengo taldeak erakusketa bisitatzen duen bitartean, gaitzarentzako kideek musika kon-



Erakusketa diren piezak ukitzeko ezezik, eskaiola tallerrean parte hartzeko aukera ere badute bisitariak.

LUIS AZANZA



tzertua eta garai modernoari buruzko hitzaldia entzuten dute. Erakusketa aretoan, XVIII. mendeko kaliza errokoak da bisitariak topatzen duten lehe-

nengo pieza. Hori ukitu eta aztertzen duten bitartean, Historian lizentziatu Museo teknikiari batek garai modernoari buruzko lehen xehetasunak ematen

dizkie zilagileen lanaren ildotik. Kalizaren ondotik, zilarrezko nabeta dago.

Zilarra, dena den, ez da erakusketa protagonista bakarra, hainbat material ukitzeko aukera eskaini nahi izan baitiete antolatzaileek bisitariari. Zilarrekin batera, burdinezko piezak daude, besteak beste kutxatzen bat. «Pieza hori aitzakiatzat hartuta, mundu zibilar buruzko informazioa ematen diegu, istorio eta bitxikerien bidez, gehiegi sakondu gabe, hori baita bisitariari interesatzen zaiena».

Eskaiola lantzeko antolatu tailerra da hurrengo geldialdia erakusketa. Bisitetan parte hartzen duten haurrak, hain zuzen, tailer horretara joaten dira zuzenean. Baina helduek ere badute eskaiolari buruz zerbait gehiago ikasi eta halako piezak ukitu eta aztertzeko aukera.

Zura da erakusketa azken protagonista. Bepizkundeko Ama Birjina bat dago, batetik, San Agustinen figura bat bestetik, eta egurrez egindako untzi bat azkenik. «Ama Birjina eta San

Agustinen figura erretaula bateko piezak dira, eta, hori dela eta, atzetik ez daude landuak eta horrek zuraren kalitate ezberdinak ukitzeko aukera eskaintzen die bisitariari». Azkenik, garai modernoko komertzioaren berri emateko, kakaoo ekarri dute antolatzaileek Nafarroako Museora.

Aipatu ibilbide horretan ukitutako piezek, hainbat erreakzio sortarazten dituzte bisitarien artean. Ana Redinen ustez, dena den, guztiek dute gustuko erakusketa. «Gogoz parte hartzen dute, batez ere aurreko urteetako erakusketa ikusi dituztenek. Galderak egiten dituzte, elkarrizketa sortzen da, nabaritzen da interesa badutela». Nafarroako Museo teknikiariaren ustez, piezak ukitzeko aukera da gehien hunkitzen dituen: «Normalean eskura ez ditugun piezak dira, eta haiek uki ditzakete. Hunkigarria da halentzat eta baita guretzat ere. Erakusketa bidez bestela ez duten aukera eskaini nahi diegu, eta espero dut aurrerantzean ere antolatzen jarraitu ahal izatea».

«Hunkigarria da»

MARIA ALVAREZ ONCEko animatzaile soziokulturala da Iruñean. Nafarroako Museo teknikiariekin batera, parte hartzen du itsuentzako erakusketa, taldeak lagunduz. Maria Alvarezentzat oso onuragarriak dira egunotan zabalik den erakusketa eta antzeko ekimenak. «Museora edozein egunetan joanez gero, pieza guztiak beirarasetan sartuta daude, itsuentzat ez dira existitzen. Beraz, egunotan be-

hinzat, itsuen esku jartzen dira artea eta kultura», nabarmendu du.

Orain artean erakusketa bisitatu dutenek oso harrera ona egin diotela azpimarratu du, halaber, Maria Alvarezek, eta, Ana Redinek bezala, oso hunkigarria dela azaldu digu. «Inork ukitzen ez dituen piezak ukitzeko aukera dute, eta horrek hunkitzen ditu, biziki hunkitu gainera». ONCEko animatzaileak, gainera, erakusketa ingu-

ruan antolatu diren gaitzarentzako ekitaldien garrantzia azpimarratu du, «ekitaldi guztiek batera lortu baitute bisitariak harrapatzea eta haien interesa piztea».

Bai, behintzat, Valentin Fortun gaztearena. Iruñeko ONCE taldeko kidea da eta erakusketa zabaldu ondoko lehenengo egunetan bisitatu zuen Nafarroako Museoan. «Asko gustatu zait. Piezak ukitu ezezik, haien bitartez garai modernoko his-

toria ezagutzeko aukera eman digu erakusketa. Baina, nire ustez, piezak ukitu ahal izateko aukera izatea da garrantzitsua, bestela ezin baitugu hori egin».

Halako erakusketa batean parte hartzen duen lehenengo aldia izan da aurtengoa, baina jada argi du itsuak motibatzen halako ekimenek duten garrantzia. «Itsuak musoetara hurbiltzeko balioko dute». Halako ekintzak beharrezkotzat jo-

zten ditu Valentin Fortunek, baina, aldi berean, onartzen du orain artean ez dituztela eskatu eta ez dutela duten garrantzia aldarrikatu. Erakusketa asko gustatu zaien Valentin Fortun ONCEko kideari, baina gauza eta pieza guztien artean bada oso gogoko duen bat, XVIII. mendeko kaliza, erakusketa hasiera ematen dion pieza. «Oso bitxia da. Zilarrezkoa da eta egilearen zigiluak antzematen dira». X

◆ Pedro Manterola ◆ Margolaria

«Merkatuak dena ordezkatu du»

Nafarroako Museoak Pedro Manterola margolari iruindarraren koadroak hartu zituen joan den ostiralean, eta han izanen dira ikusgai ekainaren 22ra bitartean. Bizitza osoan egindako lanaren adierazgarri da pintorearen atzera begirako erakusketa, 37 margok osatutako haren ibilbide artistikoa.

Edurne Elizondo / Iruñea

ETXEAN hartu gaitu Pedro Manterolak. Nafarroako Museoan bizitza osoko lana zintzilikatu ondoren, lan horri buruz mintzatu da gurekin. Espazio hutsen beldur dela erran digu, adibidez, baita laster liburu berria kaleratuko duela, besteak beste.

■ **Atzera begirako erakusketa jarri duzu Nafarroako Museoan. Zer-nolako bilduma aurkituko du hara joanen den bisitariak?**


Bizitza osoko lana. 50eko hamarkadako koadro pare bat dago, eta hortik aurrera, hamarkada guztietako koadroak aukeratzen saiatu naiz. Dena den, 70eko hamarkadako bukaerako eta 80koaren hasierako lan asko dagoela uste dut, epe garrantzitsua baita niretzat.

■ **Zer dela eta?**

Aldaketa bat gertatu zelako. Une kritikoa zen. Pintura abstraktua, abanguardista, minimalista bazter utzi eta figura protagonista duen pintura egiten hasi nintzen. Gertatu zenean ia oharkabean pasatu zen aldaketa, baina tarte horretan izan zen, 80ko hamarkadaren hasieran.

■ **Oso koadro ezberdinak ikus daitezke, beraz, erakusketan. Zaila izan da guztien artean aukeratzeko?**

Bai, zaila izan da, eta prozesu hori azpimarratu nahi izan dut. Hasieran badirudi koadroak oso ezberdinak direla, margolari bat baino gehiago dagoela lan horren atzean, baina uste dut arretaz begiratuko duen bisitaria ohartuko



Pedro Manterola margolari iruindarra, erakusketaren aurkezpenean.

JOXE LACALLE

dela elementu komuna dagoela, nahiz eta azalean hain koadro ezberdinak izan. Koadroan espazio hutsik ez uzteko gogoia izan daiteke, agian, edo denboraren joanak. Nire asmoa ez da gauza horiek islatzea edo margotzea, baina koadroak ikusita, hala dela ohartu naiz. Hor daude. Koadroak, gainera, asko aldatzen dira areto batean zintzilik ikustean. Pintura etxean edo galerian ezberdina da, testuinguruak badu eragina, baita koadro bat beste baten ondoan jartzeak ere.

■ **Orain dela hamar urte Donostian egin zenuen atzera begirako erakusketa. Nafarroan, oraingoa da lehenengoa. Zergatik orain?**

Nik erakusketa gehienak Nafarroan egiten ditut, baita Donostia edo Bilbon, baina batez ere hemen. Azken finean, leku batekoak gara, eta ni oso hemengoa naiz. Eta orain, erakusketa Nafarroan jartzeko gogoia nuen. Nafarroako Museoak atzera begirako egiteko aukera eskaini zidan, eta baletzan esan nuen. Artistok, azken finean, oso exhibizionistak gara. Nire koadroek, gainera, nire nortasuna erakusten dute. Beste margolari batzuk euren nortasuna ezkutatzeko saiatzen dira, ez dira koadroan agertzen, baina niri dagokidanez, lizunak ere badira nire koadroak zenbaitetan.

■ **Hutsari diozun beldurra aipatu duzu. Erakusketaren aurkezpenean ere ideia hori azpimarratu zenuen.**

Sinbolikoki, hustasunak, espazio hutsak, izpirituaren elikagai dira. Ni materialista naiz, beraz, aukera bakar bat ere ez diot eman nahi izpirituari, eta dena

estaltzen dut, dena betetzen dut. Horma baten antza dute koadroek. Harresi bat jartzen diot izpirituari, eta ez diot sartzen uzten. Egia erran, idealismorako dudak zaletasun naturalaren beldur naiz, eta horren aurrean, babesteko, neurriak hartzen ditut.

■ **Artea prozesu dekadente batean murgilduta dagoela erran zenuen, halaber, erakusketaren aurkezpenean.**

Hala uste dut. Edo hobeto esanda, ni naiz dekadente. Eta artista bat gainbeheran dagoenean, mundua ere hala dago, artista bat hiltzen denean, harekin hiltzen da mundua. Hori pentsatzeko joera dugu artistok, mundua gure esperientziatik abiatuta ulertzeko joera baitugu. Dena den, behin esaldi horretan nik izan dezakedan interesa azaldu ta, uste dut artearen ikusmoldea gaur egun ez dela beste garai batzuetakoa, jada ez da balore na-

s o s l a i a

Pedro Manterola 1936. urtean jaio zen Iruñean. Zuzenbide ikasketak egin zituen. Filosofia ere ikasi zuen, baina ez zen lizentziatu. Hasieran lanbidetzat Zuzenbidea aukeratu bazuen ere, txikitandik datorkio pinturarako zaletasuna.

Manterolak berak azpimarratu duenez, bizitzak pinturaren bidetik eraman du pixkanaka-pixkanaka. Orain, bikoitza da artearekin duen harremana, margotu ezezik, Euskal Herriko artearen historia irakasten baitu Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean.

Harremana hirukoitza dela erran daiteke, arteari eta pinturari buruz idatzi dituen lanak kontuan hartzen baditugu. Laster amaituko du azken hiru urteetan landutakoa. Bitartean, Nafarroako Museoan dira zintzilik haren bizitza osoko lanaren erakusgarri, 37 margo.

gusitatzat jotzen. Gaur egun dagoena dago, eta kito. Merkatua, adibidez. Merkatua, gaur egun, izpiritua da, merkatuak dena ordezkatu du, Jainkoa, egia, natura.... Hala da, eta ez dugu joandako denboragatik melankonia sentitu behar, erremediorik ez duenagatik negar egiteak ez du zentzurik.

■ **Margotu ezezik, Euskal Herriko artearen irakasle eta idazle ere bazara.**

Liburu berri bat bukatzen ari naiz. Hiru urte eman ditut jada lan horrekin eta laster amaitzea espero dut. *Lugar por el sacrificio* izena izanen du, ziurrenik, eta, hain zuzen, lehen aipatu izpirituaren aurkako borroka du gai nagusi, euskal artearen eremuan kokatua, hori baita niri interesatzen zaidana. Bizitzaren zentzu tragikoaren aldean, bizi-poza aldarrikatzen dut, nahiz eta eman dituden hezkuntzak kontrakoa erakutsi. x

«Idealismorako dudak zaletasun naturalaren beldur naiz, eta, horren aurrean, babesteko neurriak hartzen ditut»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

